


Barazkiak eta loreak

Eskolan egiteko ariketak





Bisita egin baino lehen

Mintegi batetara joango zara hemendik gutxira. Bertan egiten diren lanak ezagutuko dituzu, baina joan baino lehen bila itzazu hitz hauen esanahiak:

• Konposta:

Hondakin organikoen deskonposaketa biokimikoaren ondorioz lortzen den humusa.

• Estoloiak:

Landare baten zurtoinarenekin oinarritik sortzen den landare txoa, zainak botatzean beste landare bat sortuko da bertatik.

• Erraboila:

Erreserbak dituen lur azpiko zuztar lodia.

• Aldaxka (Eskejea):

Landare baten zurtoinetik hartutako zatia, lurrean sartu eta beste landare bat jaioko da bertatik jatorrizkoaren berezitasun berdinekin (klon bat da).

• Tipula:

Landare belarkara, lehenengo urtean erraboila eratzen da, bigarrean loraketa. Erraboila landarearen hostoen oinalde lodituek eratzen dute hosto bakoitzak geruza bat.

• Ongarria:

Lurra ontzeko erabiltzen den produktua (naturala: gorotza, simaurra edo kimikoa izan daiteke).

• Turba:

Zohikatza. Leku zingiratsuetan metatutako hondakin begetalez eratu den erregai fosila. Pisu gutxi, marroi kolorekoa, loreontzitan landare berriak zainak erraz ateratzeko erabiltzen da.

• Adar zupatzailea (Txupoia):

Adar nagusitik sortzen den adarra, zapa xurgatzen dio landareari ahulduz, eta nekez emango ditu fruitu eta loreak ondorioz, kendu egin behar dira.

Ugalketak modu asko ditu

Bila ezazu nola ugaltzen diren...

• Arrosondoa (larrosa): aldaxka eta haziak

• Letxuga: haziak

• Marrubi landarea: estoloiak, edo landarea zatikatzen

• Patata: tuberkulua ereinda




Zein ezberdintasun dago landareen ugaltze modu naturalaren eta gizakiak egiten duenaren artean?

Modu naturalean garai berezi bat egoten da ugalketarako eta haizeak edo animalia (intsektuak) izaten dira gehienetan ugalketarako prozesua martxan jartzen dutenak. Gizakiak egiten duenean garaitik kanpo egin ditzake, (negutegietan, haziak behartuta,....) eta naturan zail gertatuko liratekeen nahasketak egiten ditu barietate berriak, hobeak sortzeko asmoz.

Loreen esanahia

Landareek ezkutuko esanahi bat izan dezakete, kodigo baten antzera, eta garai batean asko erabiltzen zen. Adibidez norbaitek arrosa gorriak oparitzen ba dizkizu maitasuna eta pasioa adierazi nahi dizu oparitzen dizkizunak! Eta aldiz, arrosak horiak badira, zeloak dituela esan nahi dizu. Koloreaz gain, lore edo landare motak esan nahi desberdinak dituzte, ea lotzen duzun landare/lore multzo hau dagokion esanahiarekin:





Haziak aztertzen

Haziak "lotan" diraute baldintza egokiak aurkitu arte. Ziurrenik hazi mota bat baino gehiago ezagutuko duzu.

Aukera itzazu 4 mota ezberdin eta koadroa bete ezazu:

	Landarearen izena	Hazia				Fruitua		
		Tamaina	Kopurua	Forma	Ernaltze garaia	Mota	Forma	Garaia
1. hazia	Pagoa	ertaina	2-3	triangeluarra	udazkena	pagotxa	iletsu da	uda
2. hazia	Sagarrondo	txikia	5	malko itxurako pepita	udazkena-negua	sagarra	borobila	uda-udazkena
3. hazia								
4. hazia								

Marraztu ezazu gustatzen zaizun barazki edo lore bat eta aukeratzearen zergatia aipatu.

Awale-a ezagutzen al duzu? X. mendean sortu zen joko bat da, hazien ereintzan oinarrituta dagoena. Interesatzen bazaizue, informazioa interneten bila dezakezue eta ikasgelan jolastu.







Bisita egin eta gero

Hazien zikloa

Mintegiko bisitan ikusi ahal izan duzun bezala, landareak hazien bitartez ugaltzeko behin eta berriz errepikatzen den zikloa jarraitu behar du. Hemen ziklo horretako pausoak agertzen dira desordenaturik.

Ordena itzazu!





Etxera eraman duzun landareetako batek hosto horiak dituela ikusiko bazenu ... zer adieraziko lizuke?

Gauza desberdinak adieraz dezakete, burdin falta, ur falta, ur gehiegi...

Eta hostoetan puntu beltzak ateratzen hasten bazaizkio?

Seguruenik, onddoak dituztela

Nola lor dezakezu oporretara zoazenean etxean dituzun landareak ureztatuta modu egokian mantentzea?

Urarekin nahastean urez puzten diren Gel antzeko bolatxoak lurrari gehituta, zainek behar dutena joaten dira hartzen. Bestela "ttanttakako" sistema erabilia

Landare batek zein elementu behar ditu nahi eta nahi ez bizi ahal izateko?

Ura, argia eta mineralak.

Zer jartzen zaio zurtoinean ebakidura txiki bat egin eta aldaxka batek zainak atera ditzan laguntzeko?

Dilista

Landareen erabilpenak

Zure eguneroko bizitzan zenbat landare klase erabiltzen duzu? Zertarako?

Soja/esnearen orde, barazkiak, kotoia (jertsea, kamisetak, barruko arropa,...), zerealak,...

Zein desberdintasun nagusi ikusten duzu ondorengo landareen artean:

• Garoa edo iratzea eta mitxoleta: **Garoa lorarik gabekoa; esporaz ugaltzen da/ mitxoleta loredua, haziak erabiltzen ditu ugaltzeko**

• Huntza eta pagoa: **Huntza igokaria, enborrik ez du / egurrezko zurtoina, enborra.**

• Haritza eta sasi akazia: **Bertako zuhaitza/kanpoko edo zuhaitz exotikoa**

• Pinua eta alertzea: **Hostoak ez zaizkio denak batera erortzen/ Hostoak udazkenean erortzen zaizkio**


• Primula eta Agapanthus: **Zainak aske, bertakoa /errabolduna, Afrikarra**



Nongoak dira?

 Zergatik uste duzu landatzen direla kanpotik ekarritako landareak?

Espezie asko azkarrago hazten direlako eta lurra eutsi edo zuhaitz mardul bat egiteko errazagoa delako, beste batzuetan loreak ederrak edo deigarriak direlako... beste batzuetan bertakoek dituzten gaixotasun askori aurre egin diezaieketelako.

 Kanpoko landareak sartzeak gure ingurunean zein arazo sor ditzaketela uste duzu? Ezagutzen al duzu landare inbaditzaileak? Zein?

Bertakoak kaltetuta gertatzea, beraien lekua hartzen dutelako eta ez dituztelako berezkoak direnak hazten uzten, asko hedatzen direlako eta zabaltzen joateko erraztasun handia dutelako... Sasi akazia, Cortaderia (plumero de la pampa), Fallopia japonica, carpobrotus, ...

Lore, landareak eta barazkiak ekoizten dituen baserritarra ezagutu duzu, baina badira ezta, abarkak, gazta, ogia, frutak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserrria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!